

Arrain EZKAMAK

Etorriko da Maiatza jango doguna lebatza.

Ba dago arrantzalien artean, edo itxas-ertzean, orrelako esaera bat.

Bear ba da Marti eta Apirillean antxoa jaten aspertuta?

Ai ene! Aspertzen ete da iñor arrain fresku eta bizi-bizirik jaten? Egin ete lei gaur ok arrain jaten?

Denporak aldatu dira, giroak be bai; bai eta gizonak be, modak lez. Baiña arraiña or dago beti itxasoan. Gogoa bear itxasoratzeko. Gogoa eta barruak lagundu bear ortarako, esaten dakie itxastarrak.

Maiatza lebatz denpora baiño geiago da oraindik antxoarena.

Areriorik geien daukan arraiña dala, esaten da, antxoa. Bardin da bokarta deitu.

Zegaitik? Txikia dalako eta gozua dalako.

Itxason be beste arrain guztiak bere atzetik ibiltzen dira.

Txitxarro eta berdel banku andiak azpian artzen dabe iñoiz. Eta arrantzale gixarajuak or ibiltzen dira, San Pedroren antzera ia fedea galduta, sare erriaten gogaituta.

Baiña a la ta be, bizi-bearraren premiñaz, gau ta egun ur gaiñean.

Eta egia da, antxoa arrantzaten asi ordurako, millaka kilo txitxarro eta berdel arrantzatu bear izaten dira, orma lodi lez antxoaren gaiñean, jan eta lo tolo egiten egoten diralako.

Eta izurdeak, kaielak, tintoletak eta beste ainbat mota arrain be or ibiltzen dira bere atzetik.

Maiatza loretan aberats dan aiña izaten da itxasoan be ugari.

Eguraldi eta giro onak, baiña iñoiz ba daki Kristo'ren esaeraren arduetan biziteko iragarten be. Gitxien uste dozuen denporan eriotza etorri leikela-ta.

Gogoratu itxas ondamendiak. Eta gogoratu, Maiatzean, oraindik gure gizaldiko 1.909 urtean gertatu zana. Fermin Imaz bertsolariari entzun:


«Maiatzaren ogetalagarren arratsian galerna bat sortu zan modu zorrotzian, urrengo egunian kontu txarrak ziran, txaluparen granorik etzala etxian, zer pena izango zan askoren biotzian!»

Orkolaga abade jakintsua, eguraldiei igarten zorrotza zan a, Igeldo'tik portuetara deika, bigarren Kristo lez, kontuz ibilteko, ekaitza etorralla, galerrena sortu naian ebillala...

Arrantzaleak, eriotzari bildurra galduta, edo ta bizi bearrez, itxasora joan ziran.

Zelan Baketa laga itxasoan txarta-txartaka, emen nagoka, zirikalari ebillan antxoari?

Urrengo goizean... negarra portuetan, Kantauriko portu askotan. Txalu-



parik geienak, sare eta arraiñak itxasoan lagata, Getariara sartu ziran tatarrez. Eta ittoak? Amairu bakarrik, bakarrik! nire errian, Ondarroan. Euren artean Jose Manuel Imaz bertsolaria, Fermin Imaz'en illoba.

Orixe da itxas bizitza.

Etorriko da Maiatza, jango doguna lebatza. Baiña Maiatzen arraiñak eurak ba dakie gizon gosea agertzen. Ba dakie ondo itxastarrak.

Agustin ZUBIKARAI